

ERAKUSKETA IBILTARIA "BIZITZEKO TOKIAK, PERTSONENTZAKO TOKIAK" NATURA 2000 SAREA EUSKADIN

ERRESERBAK ETA INFORMAZIO GEHIAGORAKO
Ondoko telefonora deitu: 695782497

 **natura** 2000

erakusketa
ibiltaria
exposición
itinerante

bizitzeko tokiak,
personentzako tokiak.

lugares para la **vida**,
lugares para las **personas**.

Erakusketa ibiltaria zeri buruz?...

... denok osatzen dugun eta eratze eta ezartze fasean dagoen, Europako biodibertsitatearen galera geldiaraztea helburu duen, europar proiektu kolektibo eta parte hartzaile batean esfortzuak nola batu eta laguntzak gehitzeko aukerei buruzkoa. Proiektu hori NATURA 2000 da.

Erakusketa ibiltaria zertarako?...

...Natura 2000 Sareari buruz hausnartzeko, baita gure arbasoengandik jaso dugun eta gure osasun, oparotasun eta bizi kalitatearen oinarri den biodibertsitatearen balioaren gogoeta egiteko.


...gizakia naturaren parte dela eta berak biodibertsitatea areagotzea eragin duen arren, batzuetan bere galera ere ekarri duela ohartarazteko.

Erakusketa ibiltaria norentzat?...

...publikoarentzat orokorrean eta batez ere Euskadiko Natura 2000 Sarea osatzen duten 57 lekuetan bizi edo lan egiten duten pertsonentzat. Proiektuaren nondik norakoak ezagutzeko, nola eragingo digun ikusteko, Europako beste leku batzuetan Natura 2000 Sarearen barnean bizi eta aktibitate ekonomikoak eta biodibertsitatearen kontserbazioa bat egiten dutenen esperientziak ezagutzeko.

Erakusketa ibiltaria, nolakoa?...


...irizpide ekologikoekin diseinatutakoa. Erakusketa kartoiarekin egin da, bai panelak baita altzariak ere (aulkiak...). Enbalatu ondoren ahalik eta gutxien okupatu dezan planifikatu da, garraio eta energia kontsumo beharra gutxituz. Energetikoki Plasma pantaila eta ordenagailu eraginkorrenak aukeratu dira.



ERAKUSKETA 8 MODULUK OSATZEN DUTE:

1.MODULO: AURKEZPENA

Neska eta mutil gazte biren arteko elkarriketa batean sartzen gara (bakoitzak bere plasma pantaila du bestearengana zuzenduz). Bakoitzak biodibertsitateari inguruko ikuspegi ezberdina du. Modu erakargarri batean erakusketaren gaia aurkezteko balio du.



2.MODULOA:

"Mehatxupean dago jaso dugun natura ondare aberatsa, gure herri identitatea islatzen duten ezaugarriak arriskuan jarrita"

Modulu honetan Euskal Autonomia Erkidegoko ondare naturalaren aberastasuna islatuta geratzen da: bai habitat dibertsitatea eta baita flora eta fauna espezie aniztasuna ere. Pista joko batek marko elektronikoa batean etengabe agertzen diren 20 landare eta animalia espezieetatik 10 identifikatzen laguntzen digu.

Gaur egungo garapen eredu eta gure bizimodua, dibertsitate biologikoa arriskuan jartzen ari dira, jadaneko mehatxu larrian dagoena. "Hiru segidan" jokora jolastuz 8 mehatxu nagusiak ezagutu ahal izango ditugu. Horretarako altuera ezberdineko zuhaitzak irudikatuko dituzten 6 zutabez osatutako baso moduko batean sartu beharko dugu (1,80m eta 2,40m artean), enborrez eta basoko faunaren maketaz hornituta: okila, garrapoa, gerri-txoria, urubia edo muxar grisa. Jokoa honetan datza: zutabe bakoitzean, mehatxu bakoitza bere irudiarekin eta bere deskribapenarekin lerrokatu beharko da.

bizitzeko tokiak,
pertsonentzako tokiak,
lugares para la vida,
lugares para las personas.

La comunidad científica
anuncia que **muchos**
de los **animales y**
plantas que
constituyen nuestro
patrimonio **están**
realmente
amenazados.

Komunitate zientifikoak
ohartarazi digu gure
ondarea osatzen duten
landare eta
animalietatik
asko benetako
arriskuan
daudela.

Jolatu nahiz?
Jergos?

Este es el Plan Verde, un plan ambiental que establece
las medidas que se han de tomar para garantizar el estado
de conservación de los recursos naturales y el medio ambiente
en el 20% de las plantas.

¿Quieres que conozcas a algunos de los que aquí se
presentan?

¿Quieres jugar? Encuentra una oportunidad en
nuestro programa de actividades que te presentamos
en el Museo Interactivo de la Naturaleza. ¿Quieres
jugar?

Para más información contacta con nosotros
en cualquier momento.

natura
2000

3.MODULOA:

Biodibertsitateari eustea gure ongizatea bermatzea da. Horretan pentsatu al duzu? ... Zer zerikusi du biodibertsitatearen galerak nirekin?

Bizidun guztiak, gizakia barne, sistema komun baten parte gara, non dena elkarri lotuta dagoen. Mezu hau komunikatzeko joko bat planteatu da: elkarri konektatuta dauden landare eta animaliez osatutako sarean, horietariko bat kentzen denean, hau da, pieza bat kentzen denean, aldizkako alarma intermitente bat piztuko da eta espezie horrek gure ongizatean eta bizi kalitatean duen ekarpena erakutsiko da.




Necesitamos conservar la biodiversidad para conseguir alimentos, para lograr materias primas, para elaborar medicinas, para controlar las plagas, para depurar el agua, para generar y retener los suelos, para descomponer los desechos, para polinizar nuestros cultivos, para purificar la atmósfera, para regular el clima, para evitar inundaciones y catástrofes, para desarrollar nuestras actividades y mantenerlas en un futuro, **para garantizar la vida, nuestra vida.**

natura
2000

4.MODULO:

Natura 2000 Sarea Euskadin dagoen biodibertsitatearen galera ekiditeko proiektu nagusia da eta oraindik eraikitze lanetan dagoen talde-erronka ere bada.

Panel eta terminal informatikoei esker Natura 2000ak Euskadin eskaintzen duen dibertsitatea modu sakonagoan ezagutu dezakegu. Eta era berean, martxan jartzeko prozesuaren nondik norakoak 2 metro baino gehiago saltatzen dituen igel baten saltoekin modu grafikoan



5. MODULOA:

Natura guneen sareen proiektu honekin jendearen eta naturaren arteko lotura lortu nahi da, bientzat onuragarri izango den elkartasun-konpromisoa.



Modulu honetan metro erdiko altuerako orriak dituen mendi-koadernoak kontsulta dezakegu, Europako zenbait Natura 2000 lekuetan biodibertsitateak eskaintzen dituen onuretatik bizi eta lan egiten dutenen eskuizkribuekin eta irudiekin, proiektu zehatzak ezagutzeko aukera daukagu.

6. MODULOA:

Ez da bakarrik egiteko bidea. Geroz eta gehiago dira norberaren alde eta biodibertsitatearen alde lan egin daitekeela baieztatzen dutenak.

Apopiloentzat etxe bat eramaten duen abeltzain ingeles bat, Beskid Niskin ehun kooperatiba batean lan egiten duen kontable poloniar bat edo ostalaritza, errestaurazioa edo abeltzaintza elkarte baten web orria kudeatzen duen informatikari italiar bat, Natura 2000 Sarean eta Natura 2000rentzat lan egiten duten pertsonak dira, beraien esperientzia kontatuko digutenak.

Gata lurmuturreko Parke Naturaleko itsas-haztegi batetik ateratako itsas anfora bat, Alpujarretako tapiz bat, Urdaibaiko Erreserbako eztia edo Riet Vell-eko pasta ekologikoa dira erakusgarri dauden produktu batzuk.

7. MODULOA:

Zalantzak argitzeko, erantzunak bilatu eta zure iritzia emateko.

Modulu honetan biodibertsitatea eta Natura 2000 Sareari buruzko "liburutegi" bat jartzen da bisitariarentzat eskuragarri, Euskadiko, beste Autonomia Erkidegoetako eta Europar Batasuneko beste herrialdeetako makina bat liburuxka eta argitalpenekin, eta baita formatu digitaleko informazioa kontsultatzeko terminal informatiko bat ere.

Erakusketa bisitatzen dugunok gure iritzi, iradokizun, ideiak, etab... idatzi ondoren, txartel itsaskorren bitartez azaldu ahal izango ditugu, grafiti moduan adreiluzko horma batean, eta gutunontzi batean kontsultak eginez zalantzak argitu ahal izango ditugu.



8. MODULOA:

Natura 2000: denok lekua dugulako eta elkarren beharra dugulako, zer iruditzen familia argazkia agurtu aurretik?



Agurtu aurretik eta bisitaren oroigarri gisa, zer iruditzen gaztainadi batean basoilar, orein, drosera, sagu-zahar edo hontzaren ondoan argazkia ateratzen badugu? Argazki honek, beraiek ere benetan gure "familia" direla gogorarazteko balioko digu..

EGUTEGIA ETA UDALERRIAK

ARABA

- VITORIA-GASTEIZ (ekainak 3-14)
- ULLIBARRI-GANBOA (ekainak 17-21)
- AGURAIN (ekainak 24-28)
- PEÑACERRADA (uztailak 1-5)
- SAN VICENTE DE ARANA (uztailak 8-12)
- BERNEDO (uztailak 15-19)
- SANTA CRUZ DE CAMPEZO (uztailak 22-26)
- LABASTIDA (uztailak 29 - abuztuak 2)
- LAGUARDIA (abuztuak 5-9)
- ZAMBRANA (abuztuak 12-16)
- ESPEJO (abuztuak 19-23)
- VILLANUEVA VALDEGOBIA (abuztuak 26-30)
- AMURRIO (irailak 2-6)
- ZUAZO CUARTANGO (irailak 9-13)
- NANCLARES OCA (irailak 8 16-20)
- MURGIA (irailak 23-27)

BIZKAIA

- AREATZA (irailak 30 - urriak 4)
- OROZKO (urriak 7-11)
- MAÑARIA (urriak 14-18)
- GERNIKA-LUMO (urriak 21-25)
- KARRANTZA (urriak 28 - azaroak 1)
- BILBAO (azaroak 4-15)
- ARTEAGA- GAUTEGIZ (azaroak 18-22)
- MARKINA (azaroak 25-29)

GIPUZKOA

- AZPEITIA (abenduak 2-6)
- ZUMAIA (abenduak 9-13)
- ZARAUTZ (abenduak 16-20)
- DONOSTIA (abenduak 23 - urtarrilak 3)
- TOLOSA (urtarrilak 6-10)
- OIARTZUN (urtarrilak 13-17)
- IRUN (urtarrilak 20-24)
- ORDIZIA (urtarrilak 27-31)
- ZEGAMA (otsailak 3-7)
- OÑATI (otsailak 10-14)
- ESKORIATZA (otsailak 17-21)

BESTE ZENBAIT EKINTZA

Erakusketa ibiltaria baino zerbait gehiago...

...erakusketarekiko paralelo eta honen osagarri, ondorengoa eskaintzen da:

- Bisita gidatuak, 45 minutuko iraupenekoak eta **695782497** telefonoan aurretik txanda hartuz.
- Solasaldi-konferentziak 35 herrietan.
- Mahai inguruak 3 hiriburuetan.
- Kale antzerkia: "Super-bioak abian" 40 minutuko iraupeneko kale antzerkia 14 herrietan: Salvatierra-Agurain, Santa Cruz de Campezo/Kanpezu, Laguardia, Villanueva de Valdegobia/Gaubea, Amurrio, Areatza, Mañaria, Gernika-Lumo, Karrantza, Azpeitia, Zarautz, Tolosa, Oiartzun eta Oñati.

"Super-bioak" biodibertsitatearen zaletu diren irudimenezko pertsonaiak dira eta "Bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak" erakusketaren berri izan dutenez, ez dute galdu nahi, herri guztietan zehar egingo duen ibilbidean jarraituko dute. Plazan bingoa antolatuko dute, non "super-bio" izatearen abantailak eta biodibertsitate handiko ingurunean bizitzeak dituen onurak kontatuko dituzte, umore kutsuz.